Euskel Atala

EUZKADI GUSTIKO IZPARRAK URRUTIZKIÑEZ TA BIDAIZ IDAZKIYAK KIRIKIÑO'RI

EUSKEL IXENAK

MUNDAKA'N. — "Jokin", Pildain'tar Aniketa eta Larrañaga'tar Miren'en semiari; besuetan artu eben, Pagatzaurtandua'tar Julen eta Eigea'tar Jasone senar-emaztiak.

Zorijonak ume ta guraso ta aitama bitxijei. Olantxe beti euzkotar gustijak euzkerearen aldez ta gure elia goralduko dogu.

"Tene"-ren liburua

—Emen nator, ba, ene Kirikiño, gure irakurliai zeozer esatera "Tene"-ren liburuatzaz.

—Zer dala-ta?

—Azkenengoz zuk eta bijok euki gendun alkar-izketa batian, zeuk esan zeunstan liburu ori nun saltzen dan, erosteko ta irakurteko eta goro zeozer idazteko beratzaz, gauza labur bat ixanda be.

—Baita, baita... alantxe da, aztuta nenkan... ederto, ta zer eretxi dautsozu?

—Orra ba, erosi neban Bilbao'n, etxera eruan neban, eta neure asti-aldijetan jarraijan irakurri dot poz-pozik.

—Zeintzuk lenengo?... Itziarr'i idazkijak ala olerkijak?

—Egija esan biar dautzut, lenengo olerkijak irakurri ditut, eta gero idazkijak. Eztot esango zeintzuk diran obiak, dana'k onak irudituten yataz. Orraiti, ezin leikeukatu, idazkijak neskatillentzako oso irakasgarrijak dirala, sakonak, gai asko dauke sartuta; gure neskatillak ondo egingo dabe idazki orrek astiro-astiro irakurrijaz, ta euretan zer-ikasi asko aurkituko dabe.

—Beraz, asko atsegin ixan yatzuz idazkijok.

—Asko··· esaten dana letxe. Baña olerkijak, nik irakurri ixan dodazanetarik onenak ezpa'dira, bai onenetarikuak, lenengokuen parekuak.

—Alantxe da, zeuk diñozun orixe uste ixan dot neuk be beti olerki orretzaz.

—Emen esan dautzudana ipiñi egizu "Euzkel-Atala"-n, eta eginda dozu lenguan eskatu zeunstana.

—Eskerrik asko.

—Alde egin baño lenago, eskar bat eskatuko dautzut.

—Zein?

—"Tene"-ren olerki auxe eredutzat ipiñi dagizula.

—Pozarren.

◇O◇

Gogo-negarra

Gogoa illun ta biotza miñez,
Urtzi nerea, emen naukazu;
Beti alaka, beti zotiñez,
Neke gogorra zait ba gallendu:
Ta Zuri ezik, nik nori deitu?

Biotz-atean maitasun-eske.
Somatu zaitut ainbat alditan,
Eta ero onek, iriki gabe
Bidaldu zaitut neure kaltean.
¡Jainko aundiya zer egin detan!

Bañan gogoak, Zure deyaren
Gozotasuna ezin du aztu;
Ain dei biguñik ez du entzuten,
Zu lez maiterik arkitzen ez du,
¡Eta gaur berak billatzen zaitu!

Ludiko poza, Zu gabe, Jauna,
Ez da besterik, neke latz latza,
Atsege larri, txit zama aztuna,
Zoritxar gogor ta eriotza;
¡Ez orren billa nere biotza!

Gaxua, maitez Zeutzat ein dezu,
Ta Zeutzaz ezik ¡ai! ezin da ase;
Dena da gutxi Zu ez bazaitu,
Ezin da bizi Zure poz gabe;
¡Beretzaz, Urtzi, erruki zaite!

Zure atean maitasun-eske
Jainko laztana gaur ni naukazu;
Ez utzi arren iriki gabe,
Nere obenaz ez Zu oroitu,
¡Nik Zu bezela ez Zuk ni aztu!

TENE

Idazki-Ereduak

Jerusalen-osterean semiak amari

BOSFORO

Neure amatxo kutuna: "Ilde Frans" itxas-ontzijan egin dogu ibiltaldi eder bat Bosforo iztunatik ziar.

Bosforo iztuniak bananduten dau Asia Europa'tik, eta bere bidez Itxaso Baltzetik (Mar Negro) igaro lei Marmara itxasora; 27 kilometro daukoz luzeran eta Itxaso Baltzaren sarreran daukoz eskerreskumatara mendi bijetan gastelu sendo bi galerazoteko sarreria itxas-ontzi gudalarijei.

Uts egiteko bildur barik esan lei, toki auxe dala Konstantinopla'ko tokirik ederrena; iztuna gustijan, eta erreskada luze-luzian ikusten dira txadonak (mezkitak) euren ezpadaña zorrotzakaz, kupulak, almiranak, jauregi ederrak, gasteluak, zudari-etxiak, ostatuak, zipres ta platano ta piñozko baso asarriak eta abar; ikusmira ederragorik ezin aurkitu leiteke ludi gustijan; etxerik geyenak, ez izanik jauregi eta txaletak, egurrezkuak dira, auxegaitik suak artzen dauzanian erreten dira millaka; beraugaitik beti dago Galata'ko torrian adi edo zaintzen ainbat gizon, sua ikusten daben unian bertan lagundutera juateko.

Amasaspi geltoki (estaziño) daukoz iztuna onek. Bigarren geltokijan ikusten da Barbarroja itxas-lapurraren obija (sepulturia), baita be geltoki onen inguruan ikusten da Txeragan'en jauregi ederra, baña eztabe ikusten izten, ezta urreratuten be, antxe dagoalako "haren" zati bat eta zaintzalle asko dagozalako.

Saspigarren geltokijan ikusten da Dario erregiak egin eban zubi ederra, nundik igaro zan, aldi aretan, 700.000 gizoneko gudarozte indartsua.

Toki au dana da ikusgarrija eta guk itxas-ontzitik urten baga ikusi dogu gustija; ez gara sartu Itxas Baltzian ta bira egin dau itxas-ontzijak, eta gelditu barik Konstantinopla'n, sartu gara Marmara itxasoan Pireo'runtz, laster igaroko gara antziñako Nikomedia urijaren aurretik, baña gelditu barik, ba uri au ez dago gure ibilkundian ixentauta, Nikomedia'ko urijak ziñopa edo martirik asko emon dautsoz zeruari; Adrian Deuna eta beste 23 bere lagunak ementxe ixuri eben odola Jesukristo'ren ziñesmena autortutiagaitik Bitor, Bitoriano, Kintilio, Modesta, Fiñoteo deunak eta beste askok be, emendixek igon ziran donokira; alde au kristandadeko alderik ospatsuena izan da.

Laster sartuko gara Dardanelos iztunan eta, egunez igaroko dogu, eta uste dot bigarrenez mesa deuna esango dodala iztuna onetan.

Itxas-ontziko agintari edo kapitanak esan dausku, bidian ikusiko doguzala Mitilene, Kios, Imbros eta beste ugarte asko be, eta eguastenian elduko gariala Pireo uri txikira, emendik Atenas'era juateko.

Agur ba amatxo, Atenas'tik idatziko deutzut barriro, astirik badaukat.

Jose Apita'ri esan atunetatik datorrenerako or izango nazala, ba emendik Erroma'ra goaz, baña egun gitxi egingo dogu uri aretan.

Maite zaitu zeure semetxo

JON-EK

ALMACEN DE PAÑOS
Novedades de señora
MENDAZA, MELERO Y COMP.ª
Portal de Zamudio, 4, entrada por la Ronda
Precios fijos y económicos
GRANDES EXISTENCIAS
Teléfono 93-42.

Izparrak bidaiz

Bergara

—Kaixo Alexander.

—Kaixo Peli.

P.—Pentzaketan? Pentzaketan?

A.—Ez mutill... asmaketan.

P.—Beti lez bizkaitarrismua buruan dakala edo.

A.—Ez, orainguan euzkotarrismua zeukat.

P.—Dana ez dek ba bat?

A.—Ez, etxe baten bizi dituk, baño ez dituk sendi batekuak.

P.—Zer asmatu bear diok ba euzkotarrismua'ri?

A.—Euzkotarrismuari edo... erdeitzaletasunari edo... Ara Peli: nik nai dut "sobrante" darabilgun erdera oni atzerakada bat ematia, au dek, euzkera indartzia.

P.—¡Mutill! Gizon argiak etzeudek ba or ori asmatzeko? ta ondo asmatzen dutenak? Zer daukak ik zer sartu gai orretan? tonto lapiko.

A.—Bai, baña...

P.—¿Zer baña? Euzkeltzaindia, Euzko-Ikaskuntza. Donostiko Euzkel-Istundeakuak eta abar eta abar etzeudek ba ardura aundiarekin geure euzkera au indartzen dutenak?

A.—Bai, ta nere eskerrak daneri. Baña enauk orretara zuzentzen, baizik, geure Jel Batzokietan darabilgun erdera "sobrantia"-rengana baño besterik; zergaitikan abertzale asko dituk erdera "como si no" erabiltzen dutenak geure batzokietan euzkeraren ordez.

P.—Euzkeraz ez dakielako.

A.—¿Ez dakielako? ¡Or ziok ba untzia! Erdeidun abertzaliak balirakek gaitz erdi baño ¡euzkeidunak, euzkeldunak!

P.—Eta... ametitu orrelako abertzaliak Batzokian?

A.—Nik nere bototik ez, eta erdera "sobrantia" nolaz atzeratu dalako neure gaurko gaia neure asarria agertzen ziotet erdera aiñ goian daukaten Jel Batzoki guztieri, ta batez ere, euretan buru diraneri.

P.—Ondo ziok. Beraz Euzko Batzokietan erderaz e?

A.—Bai Peli. Ta ez ori bakarrik, ¡antzezkizunak ere bai!

P.—¿Antzezkizunak ere erderaz? orduan atiak itzi zeinkiez.

A.—Erdel-antzerki jai orregaz eurak uste gabetanik ematen ziotek zenbait batzokietan geure ele zar oni izugarrizko arrikada.

P.—Eurak uzte gabetanik? Ez ditek orrenbeste "konprenditzen" a la?

A.—Ez ba, antzezkizunak aberkoyak dirala ta.

P.—¡Ai, ai, ai...! Orduan... "Lauste Kriste".

A.—Bai, ta... naiko "triste".

P.—¡Orrenbeste euzkel-antzerki egonda!

A.—Bai, baño zoritxarrez aberkoiak gutxi, ta nere ustez ortik etorrek oker au.

P.—Euzko-Ikaskuntzak jostirudi asko euzkeraldu dituan bozeia zuek ere erdel-antzezti aberkoi orrek guziak euzkeraldu itzazute, eta alegindu aurrerakuan euzkel-antzezti aberkoiak ateratzen eta gogoz antzeztutzen eta orra or "erremedio" bat erdera atzeratzeko, eta geure euzkera ta aberria indartzeko.

A.—Bien Peli, nik asmatzeko neukana ik asmatudek. ¿Eta zeñek euzkeraldu?

P.—Jartzia zeukak Buru-Batzarrak batzorde bat arazo ori aurrera eramango dubena eta egiña ziok.

A.—Ondo dek. Berialą niak eurengana ta... urrenarte.

ALEXANDER

Muxika

Eleizalde aundia zanaren gogo aldez Deun Iñaki egunian eleizkizun ederretarikoa egin zan erri onetako Ariatza'ko Eleizan.

Goizeko 8'etan gure emengo Urrutxurtaabade jaunak jaupa egin eban, "misa de Angelis" deritxona Sarduí'tar Toma artezkari zala abestu zan ederto, jaupa erdian Auso ikastoletako (Zubieta'koak eta Ariatza'koak) umien Jaunartze orokarra oneen irakasle diran Ajuria-Auzokoa'tar Jone eta Arana'tar Pilar eurekin zirala, eta onez ganera beste abertzale aldra bat be bai, Jaunartze bitartian "Ogi zerutik" abestu eben oso samurki askori maitasunmalkoak urteten euskuela, une aretan gure Eleizalde jeltzale gurena nire irudimenian bixi--bixi eguan G. B.; azkenik Deun Iñaki-ereserkia abesturik amaitu zan eleizkizuna.

Eleizia beterik egon zan eta gustiak eretxi eutzen ederto egin zan jaiari, eta ondiño goralben geyago izan zan Auso ikastoletako ume ta irekasle biyen artian (arpidian) baturiko diruaz egiñikua zala jakin ebenian.

Ikastolumiok bai ekien Eleizalde gaizorik txarto be txarto aurkitzen zala euren irakaslak esanda eta irakaslen aginduz, sarri otoi egiten eben beren osasun aldez Deun Jagoba egunez emetik Bermeo'rantza eruan eben gorpua Eleizalde'rena zala jakin ebenien umiok tamalez beterik beriala batu ziran eta euretatik batzuk esan eutsen bestiei: "Guk entzun dogu iñoz gure auzo-ikastolak eukitia asko be asko Eleizalde'ri zor yakola eta guk geure eskar ona erakusteko erarik egokijena ontxe daukogu, guk danoen artian bakotxak apur banagaz jaupa-sari polita batuko geunke, jaupa ori Eleizalde onaren, geuri beti euzkeraz maiteki itz egiten euzkunaren gogo aldez opaltzeko gure irakaslek be ontzat artuko dabe-ta. Au entzunaz batera gustiak abo batez erantzun eben: "bai, orixe egin biogu".

Agertu eutzen asmo au euren irakasliei eta oneek ez bakarrik ontzat emon baita pozik andijenagaz goretsi eta esan eutsen: eleizkizuna egizko biotz maitasunezkoa izan dedintzat gustiak Jauna artu biar ebela jaupa aretan eurak be etorriko zira'a-ta, eta jaupa-sariya be ona izan dedin eurak be emongo ebela eta olantxe egin eben ba jaupa-saria emon yakonian (asko eretxiz) abadiak esan eban: "orduan beste mesa bat emon bearko dot datorren domekan".

Geure txaloak auso-ikastoletako ume maitakorrei, eta euren irakasle argi eta biotz oneko anderaño bieri, euren maitasunezko erruki-egintza goralgarri origaitik eta Eleizalde'ren alargunari eta beren sendiko gustiei geure tamal agurrik biotzetikoena.

PELLO-MARI

Izparrak eta

"JESUS'EN BIOTZAREN DEYA"

Atzo eldu yakun illabete oni yagokon zenbakija ta dakaz irakurgai onexek: Idazlari katolikuak, Jokin Azpiazu S. J.-rena;-Ongi etorria Gotzañari;-Bizkaya ta Gipuzkoak euren Zaindariari, J. L. Egia'tar J-rena;-Gipuzkoara berriro;-Gazteiz'ko Gotzañaren Artzain-Idazkija euzkeraz;-Jesusen Biotzaren berri onak.

GURE ENBEITA'REN ESKER ONA

Deba'ko neskatilla bik batuta ona bialdu ebezan 50 laurlekuak artu dituala esaten daust Enbeita'tar Kepa'k, eta bere idazkijaren atzenian auxe diño:

"Niri abertzaliak maitasuna ta txindija damoste eta nik... maitasuna bakarrik. Aberastasuna Bera dan Urtzi deunari biotzez otoi dagitsot bateko eunegaz ordainduu dagiola nire ongilla gustijei osasuna ta zorun osoa emonik".

"TATIKIE"

Beñola egurastuten ebiltzala Malparda, Berge txiki, ta eurek lako batzuk, esaten-eben: Bizkai'ko aiderdi gustijek geure aldez, txapel-oker gustijek geure aldez, epaikarijek geure aldez, gobernadoria geure aldez, España-laterrijak daun indarra dana geure aldez, orrez ganera, geu, diruaren jabe, ta... onan ta gusti be ezin ixan dogu bizkaitarrista madarikatu orrekaz, irabasi ein dauskue, eta geuriaz urteteko España-laterriko lege gustijek ostikopian sartu biar ixan doguz auteskundiek "anulateko". Untze gogorra sartu yaku.. zelan atara?...

Onetan ikusi eben gixon bat zubil batik untze bat ataraten ebillaia, ta danak juan ziran arixi begira; gixon arek untziari beste bat onduan sartu eutson, eta lenengua alan loka ipiñi eban, eta gero erraz atarabe.

Malpardak eta, andik alde egin ebenian alkarri esan eutsien pozez ikotika:

—¡¡Oixe egin daigun, oixe egin daigun!!

—¿Baña nun daukogu beste untzia? itandute-eben batzuk.

—Topauko da, batebat edo batebatzuk bein be eztira palta ixaten.

Eta... baita, topau eben untze ori, ta sartu eben bestiaren orduan, eta or dabiz aspaldi onetan, tanga ta tanga bigarren untze motza buruan joten, baña alperrik, lenengo untziak egurraren barruan erruek bota dauzalako alde gustijetara, ta untze motz orrek ezin dauz erro orreek jaritxi ta gitxiago atara, ¡bai zereko atara!···

¡Ekijozue, ekin, Malpardok eta untze motzok alperreko bierrak eiten!

¿AULKI ORREK ZER DAUKO?

Bilbao'ko alkatiarenak esan gura dogu.

Lenago Laiseka txikik ezeban laga gura ezegaitik be, eta atara ebenian atsakale itxela igaro eban. Orain, Arantzibia or ibilli da iñok aulki orretátik tireka be ezin atarata, eta azkenian atara dabenian gelditu da ollazko bat bizirik mutilduta baño ozkillago.

Bere lekuan sartu dan Arostegi, mutiko bat zapata barrijekaz baño pozago dabil bere aulki orregaz, ta uste dogu kostako dala bertatik ataraten.

IZKIRIMIRI ZARRA

Or Melilla aldeko arazuak gogora dakasku izkirimiri zar bat.

—"Mi capitán; aquí tengo un prisionero", didar egite-eban soldau batek.

—"Pues tráetelo" erantzun eutson kapitanak.

—"Rediez, es que no me deja".

Ez ba, ¿zelan ekarriko eban, prisionerua bera zan-da?

Or Melilla-aldian be, beti dabiz didarrez bakia egin dabiela, moruek azpiratu dabezala, ta olako barriketakaz; onezkero, bakiak ospatzeko, batek-baki zenbat zekor ta ari il ta jan dituezan. "Ba, ori olan ba'dok etorri zaitie", esaten dautsie. Eta eurak ordduan erantzuten dabe izkirimiriko sold dauena: "Rediez, es que los moros no nos dejan".

HARDING IL DA

United States'ko lendakari Harding arañegun arratzaldian il zan.

Egunotan irakurten ixan dogu gexorik aurkitzen zaia ta txarto; batian, berenua emon ete-eutsoen jatekuen baten; bestian alborengua (biri-anditua) ete-eukon. Eta orain diñoe sormiñaz (apoplegiaz) il dala.

Gixon orren erijotziak, diñoe, zalapartak sortu leizala United States'en. Tamala ixango litxake oixe, a lako erri andi bijotztsua indargetutia.

DIPUTAZIÑO BARRIJA

Atzo jarri eben: lendakari Urien jauna, lendakari-orde Alonso jauna, Batzordeko Nausi'ko lendakari Kareaga jauna.

Urien jaunak itzaldi baten esan eban, bere lekutik aleginduko dala Bizkaya'ren onerako, ta ganeratu eban, ezebala gura eztabaidarik eta asarrerik, eta Bizkaya-aldez danok batu biar dogula.

Eztago txarto esana; ta gure Orbi'k esautsona: "Esan dozuna beteten ba'dozu neuk iñok baño lenago zorionduko zaitut", dirautsogu geuk be.

OSALARIJEN OPORRA

Murzia'n osalarijak edo medikuak oporrian egon ei-dira, ta ointxe euren auzija erabagi dala ta... bierrera sartu ei-dira barriro.

Nik uste neban osalarijak oporrik ezin egin leikiela.

GURE BOSTEKUA

Ematen diogu Larreta jaunari Gipuzkoa'ko Diputaziñoa'n eta España'ko Ordelaria'ren aurrean euzkeraz bukatu zualako bere itzaldia.

Larreta jaunak egin duana egin bear liteke euzkelerriko egintza edo batzar gustietan, pixka bat badare, besterik ezin badare, zeozer euzkeraz esan. Agertu dedilla beti euzkera euzkelerrian.

KIRIKIÑO

EUZKADI

El lector de **EUZKADI** se entera de lo que ocurre en el mundo mucho antes que los de otros diarios.

Un anuncio de **EUZKADI** se lee en Bizkaya y Gipuzkoa tanto o más que si se pusiera en otros dos diarios de Bilbao y Donostia (S. Sebastián).

VEASE LA PRUEBA:

EUZKADI llega a:	a las	Los de Bilbao a las	Los de Donostia a las
Cidakano	3,50	6,—	10,—
Amorebieta	4,—	6,30	9,31
Durango	4,15	7,43	9,12
Olakueta	4,28	7,57	8,57
Zaldibar	4,30	8,3	8,52
Ermua	4,33	8,18	8,33
Eibar	4,41	8,27	8,26
Malzaga	4,45	8,37	8,18
Placencia	6,—	8,53	8,53
Bergara	6,15	9,20	9,20
Mondragon	6,30	9,40	9,40
Oñate	7,30	9,50	9,50
Aretxabaleta	7,—	10,—	10,—
Eskoriatza	7,15	10,15	10,15
Elorrio	7,30	10,51	16,43
Elgoibar	4,53	8,44	8,6
Alzola	4,58	8,52	7,58
Mendaro	5,2	8,57	7,52
Deba	5,12	9,9	7,40
Ondarroa	6,—	10,—	10,—
Markina	6,40	11,—	11,—
Arrona	5,50	9,26	7,24
Azpeitia	8,—	9,30	8,—
Azkoitia	8,—	9,30	8,—
Zestona	8,—	9,30	8,—
Zumaya	6,—	9,32	7,17
Getaria	6,30	—	—
Zarauz	6,25	9,47	7,4
Orio	6,40	9,57	6,54
Lasarte	7	10,17	6,34
San Sebastián	7,15	10,30	—
Andoain	7,10	12,52	7,10
Villabona	8,14	12,38	8,14
Tolosa	8,30	12,25	8,30
Villafranca	8,58	11,46	8,58
Beasain	9,07	11,36	9,7
Ormaiztegi	9,23	11,16	9,23
Zumarraga	9,52	10,—	9,52
Pasajes	7,45	11,10	7,—
Renteria	8,—	11,25	7,15
Irun	8,40	11,40	7,40
Astigarraga	8,—	11,—	6,40
Ernani	8,15	11,30	6,50
Vitoria	10,15	10,15	10,15
Pamplona	10,04	19,19	10,04

Leyendo **EUZKADI** estará usted mejor informado que si leyera un periódico de Bilbao y otro de Donostia.

Anunciando en **EUZKADI** tiene usted por el precio de uno la difusión y propaganda de dos periódicos.

BALNEARIO DE SOBRON

Es grande la concurrencia de agüistas a este renombrado establecimiento, a donde acuden de continuo numerosísimas familias, procedentes de todas las regiones españolas. Entre las muchas que han concurrido y que actualmente se encuentran en el Balneario, podemos mencionar las siguientes:

De Bilbao: don Enrique Rochelt y señora, don Mario Rochelt, don Telesforo de Areizaga, señor Abascal y familia, doña Juliana de Karrantza, don Mariano de Epaltza y su hija Concha, don José Díaz de Terán y señora, don Ignacio de Mutiozabal y familia, don Ramón de Garrastazu, doña Mercedes Zabala de Galíndez, don Lorenzo Hurtado de Saratxo y familia, doña Teresa Garate de Artiatxe hijos Milagros y José, don Alejandro de Arana y familia, señoritas Felisa de Karrantza y Encarnita Portillo, don Pablo de Atxa y familia, don Tomás Peyre y señora, señorita Ino de Bayo, doña Asunción Galíndez de Chapa y familia, don Juan Alonso Allende y familia, don José María de Zubiria y familia, don José de Azaola, don Jerónimo Merino, don Feliciano de Erzilla, don Enrique de Uriguen, don Damián de Agirregabiria y señora, don Hilario Mató, don Martín de Garate, don Juan Manuel de Gandarias, don Gregorio Prados Urkixo y familia, don Andrés Martín y señora, con su sobrina señorita Angeles Martín, don Celedonio Fúster, don Victoriano Díliz y familia, don don Evencio Cortina y señora, don José de Basagoiti y señora, don Carmelo de Solano y hermana Nati, don Luis Masip, don Claudio de Lekanda y familia, don Epifanio Lasheras y señora, don Luis Portillo y señora, don Luis M. de Aznar y familia y don José M. de Aznar y señora.

De Madrid: doña Pilar Bassons de Sirvent e hija, don Alvaro de Juana, subdirector de Orden Público, doña Francisca de Beraza, viuda de Meric, doña Josefa García Leonís de Cuadra, doña María del Campo de Hurdisan e hija María, doña Aurora Mella de Sanz Baranda, don Manuel Monjardín, don José Villar y Villate, excelentísimos señores condes de Balmaseda y Pallarés, doctor don Juan Luis Subijana, madame Louisse y madame Gustave Dupuy, condesas del Sacro Romano Imperio y de Valcabra, don Vicente Gaitan de Ayala, conde de Villanueva y familia, doña Isabel Gómez Acebo, señorita de Marañón.

De Barcelona: la familia de don Juan Vidal y señorita María de la Riva.

De Donostia: doctor don Juan José de Zatarain, señorita Margarita Martiarena de Pagoaga y su hermana Pepita, don Pedro de Mendizabal y familia, don Delfín Hernández, don Manuel Madrazo e hija.

De Santander: don Antonio de Zumeltzu, don César Gómez Andaluz, don Ramón Fernández Trápaga, doña Ana de Isasi, viuda de Arrarte y don Adolfo de Agirre.

De Zaragoza: don Valero Ros y familia, don Mariano Sánchez Gastón, don Venancio Hernández y señora, don Aurelio Muñoz, don José Ventura y señora madre, don Victoriano Abad, don Ceferino Agudo, el reverendo Padre Luis Colomina, don Marcelino Casado, doña Mercedes Pérez de Zorrilla e hija, doña Pilar Bonnell, doña Tomasa Arasco e hija, doña Luisa Marco, don Próspero Mimbielle, don Ceferino Theus, don José González y señora, don Narciso Catalán, doña Rosario Lafuente, don Alberto Gerner y señora, don Marcelo Broto y señora, don Ernesto Frissen, don Emilio Zaera, don Pedro Torres, don Germán López, don Gil Gil, don Mariano Labordeta y don Constancio Pascual.

De diversas regiones: don José Serrat e hijo, doctor Tomás Rallo, don Manuel A. de Barriola, don Pedro de Bilbao, don Esteban de Garai, el abad mitrado de San Isidro de Dueñas don Félix Alonso, don José de Erezuma, don Mateo de Saratxaga y hermana, don Ramón Córdoba, don Plácido Soto, don Juan Bilbao y señora, y otros.

Se espera la llegada del doctor don Gabriel de Zearreta y familia, don Fernando Alfaya y familia, don Luis de Astorkia y señora, señora viuda de Rivacela, doctor Gota, doctor Compaired y señora, don Ricardo de la Concha y otras distinguidas familias, que tienen solicitadas fechas.

LOS SELLOS GULL
AUMENTAN RAPIDAMENTE LA LECHE A LA MADRE QUE CRIA CON DIFICULTAD A SUS HIJOS
Venta en farmacias.
Depositario en Bilbao: Farmacia del Dr. Artaza.— Plaza Nueva, 4.

CHAVES Y COMPANIA, S. en C.
BANQUEROS
Rambla del Centro, 6.—BARCELONA
REALIZAMOS TODA CLASE DE OPERACIONES BANCARIAS
Dirección telegráfica y telefónica: CHAVESCO